

## **"Cuando los peces mueren de sed". Ugalde'tar Martin'en liburu bat**

Arregi, Rikardo

*Zeruko Argia*, 54. zk., 1964-03-15: 5.

Oso gogo onez mintzatzen naiz gai onetaz erritarra baidet egillea ta gañera adizkidea.

Ilbeltzian artu nuan liburu egilleak berak bidalita ta bereala irakurri arteko pakerik ez nuan izan nere buruarekin. Izan ere ez baidizkiote bati egunero liburuak bialtzen egilleak berak eskeñita.

Ez nijoa liburu onen kritika egitera literaturari dagokionez, ez da ori nere egitekoa ez da nere gaia ta. Nere iruditu zaitena bakarrik esango det.

Venezuela'ko erriaren nortasuna geiago ikusi detala uste det Andes'tako Unibersidadearen Erretoretzak argitaratu duan liburu au irakurri ondorenean. Egia esan asko ziran ulertzen, entenditzen ez nituan itzak eta gauzak, bañan zorionez Venezuelatar batzuek badituz lagunen artean eta oiei eskerrak ulertu ta entenditu al izan det liburua oso-osoan. Izan ere liburuak Andes'tan dauden erri txikiak, gizonen izaera ta bizimodua azaltzen dizgiku. Mendi tartean eta baztrtu antxian dauden errien nortasuna ta egia azaltzen dizkigu. Venezuela'ko askoentzat ere ez ezaguna dan egia. Ez da ba arritzekoa liburu ortan guretzat itz eta gauz asko ulertu eziñekoak izatea.

Liburu onek "El Nacional" Caracas'ko egunerokoarentzat egindako reportaje batzuek biltzen ditu. Orregatik bereala antzematen da liburu ori peridista batek idatzia dagona, ariñ –sakontasuna galdu gabe– trebe, bizi, indartsu... azaltzen zaigulako. Benetan zoriondu bearrekoa egillea.

Alderdi aietako gai ta iguitu-bear guztiak aitatu ta erabiltzen ditu. Irakurlearen aurrean eten gabe ta bizitasun aundiarekin or dijoazte gizonak era guztietakoak, erriak, oiturak. Neretzat Venezuela'k izkutuan zuan anima bat arkitze izan da. Ta pozgarria gañera.

Bijoazkio Ugalde'tar Martin'i nere erritar eta adizkideari zorionik beroenak.